

JON MOLINA

ESTATUKO SARIA MATERIALETAKO
INGENIARITZAN
eta
CAMBRIDGE-ko UNIBERTSITATEAN
DOKTOREGAI

Nagore Olkoz Aldaregia



Jon Mikel Molina Aldaregia hernaniarrak 1999an Materialetako Ingeniaritzan estatu-mailako lehen saria jaso zuen. Aipatu saria Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eman zion bere ikasketa-espeditante bikainagatik.

Sarituak berak aitortu duenez, etengabeko lan eta ahaleginaren

emaitza da ikasketa-espeditante hori, eta orain ere etengabe ari da lan eta ahaleginean Cambridge-ko Unibertsitatean, doktoregoa amaitzeaz baitu bertan.

Jon Molina Aldaregia Cambridgeko Unibertsitatean ari da, azken bi urteetan, materialen inguruko Doktoregoa egiten. 26 urteko gazteak praktikotasunagatik aukeratu zuen ingeniaritza, eta ikerkuntzaren alorrak asko erakartzen duela aitortzen du. Doktore izateko gutxi falta zaio, edo hori da, bere berehalako helburua, alegia, Britainia Handian hasitako ikasketak abenduan amaitzea. Zinema, irakurtzea eta lagunekin ibiltzea du gogoko jonek, eta noizean behin, Hernaniko giroa faltan botatzen duela dio. Alabaina, lan latza izanen du bere buruak hemendik aurrera, bere etorkizunarekin zer egin erabakitzen saiatzen ari baita. Berak aipatutakoaren arabera, ikerketa munduan jarraitzea gustatuko litzaioke, baina oraindik ez daki Euskal Herrian ala atzerrian arituko den.

"Doktoregoa amaitu ostean ikerkuntzan aritzea gustatuko litzaidake"

Zergatik erabaki zenuen ikerkuntzan aritzea eta ez beste arloetan?

Beno, galdera zaila da hori. Ez dakit...nik ingeniari itza ikasi nuen, baina aukera egin nuenean, fisika ikastea ere pentsatu nuen. Azkenean, ingeniari itza aukeratu nuen "praktikotasunagatik". Gustura egin nuen, baina beti eduki dut gauzen oinarria ulertzeko gogoia. Nik uste dut ikerkuntzak batu egiten dituela gehien gustatzen zaizkidan arloak: alde batetik, zientzia, "zergatiak" ulertzeko oinarriak, eta bestetik, "praktika", arazoak konpontzeko oinarri horiek nola erabili azaltzen dituen.

Betidanik izan al duzu buruan Cambridgera joateko ideia?

Cambridge ez zen aurretik jarritako helburua niretzat. Doktoregoa atzerrian ikasteko gogo bizia nuen, hizkuntzak ikasteko, kanpoan bizipenak izateko eta funtsean, aldatzeko. Ingalaterra eta Estatu Batuak nituen batik bat buruan, baina azken hau baztertu egin nuen, izan ere Europatik doan jendearentzat matrikulak oso garestiak baitira. EEBBetara joateko diru laguntzak badaude, baina Europara joateko baino askoz ere gutxiago.


Orduan, azkenik nola sortu zen Cambridgen Doktoretza egiteko proiektua?

Karrera amaitu eta gero CEIT-en, Ikerketa Teknikoen Zentroan, egin nuen proiektua. Hortan ari nintzela, Cambridge Unibertsitateko irakasle bat etorri zen eskolara. Bertan, ikasteko aukerei buruz mintzatu nintzaion eta berak hainbat kontakturekin jarri ninduen harremanetan. Lakuak eskaintzen zituen hainbat diru laguntzaren berri izan nuen eta interesgarria iruditu zitzaidan batean eman nuen izena. Zorionez, laguntza eman zidaten eta proiektua amaitu eta bi astera abiatu nintzen, eta hementxe nago.

Zer nolako inpresioa jaso zenuen izen handiko Unibertsitatea aurrez aurre izan zenuenean?

Lehenik eta behin nire burua han ikusita, lekua baino, nire ingelesa nahiko kaxkarra zela konturatu nintzen.

Hasieran, ez nintzen talde batean hitz egiteko gai. Han bizi ahala Unibertsitateak mantentzen dituen ohiturek harritu ninduten, tradizioak indar handia du han, eta jendeak "pertenentzia" sentimendu handia du Unibertsitatearekiko, bere izena eta koloreak defendatzen, Oxford-en kontrako arraun txapelketak, esate baterako, oso serio hartzen dituzte, eta hori, kanpotik iristen zarenean, ulertzen zaila da. Halaber, Unibertsitatea nola antolatzen den deigarria iruditu zitzaidan, izan ere, gauza bat da Unibertsitatea erakunde bezala, eta horren ondotik college-ak daude, eskolak edo, Unibertsitateak duen hezkuntza eredu bere sistema propioaren bidez bermatzen dute.



Han egoteak zer ematen dizu?

Lehenik eta behin oso interesgarria da Doktoregoa atzerrian egitea, beste herrialdeetan duten ikertzeko era ikusteko aukera daukadalako, eta aberasgarria da ikertzeko era eta baliabideak desberdinak direlako. Hemen han baino gauza hobeak daude, eta alderantziz. Hala ere, nire ustez Cambridgek daukan alde positiboa jende ona dagoela da, alderdi profesionalean diot. Giroa akademikoa da eta horrek asko laguntzen du. Era berean, munduko leku askotako jendea dago, eta ikuspuntu desberdinak ikasteko aukera daukat, bai lanari dagokionez, bai bizitzako hainbat gainen inguruan. Beste alde baikorra hainbat ikerlarirekin harremanetan egotea da, orain Cambridgen badaude ere aurrerantzean munduan barna ibiliko dira.

Nola ikusten duzu gaur egun ikertzaileen egoera Euskal Herrian?

Argi dago Ingeniaritza ikasi duen jende gehientsuena ez dabilela ikerketan. Berehala aurkitzen du lana, baina enpresetan, bestelako gauzak egiten. Ikerketari dagokionez ezin dizut ikuspuntu zehatzik eman, ez bainago Euskal Herrian eta ez dut gaia kontrolatzen. Dena den, nire ustez ikerketari tarte handiagoa eskaini behar zaio hemen eta laguntza handiagoak eman. Alabaina, Lakuako Gobernuak atzerrian ikerketa egiteko bekak ematea pausu bat dela deritzot, oso positibotzat jo dut politika hori.

Beste gai bati helduz, zer ondorio ekarri zizun Materialen Ingeniaritzan Espainiako Estatuko espediente onenaren saria jasotzeak?


Egia esan ilusio handien horrek berarekin zekarren diru laguntzak eman zidan, diru horrekin kanpora joateko bidea zabaltzen hasten da edo beste gauzaren bat egiteko. Sari honek ez du esangurarik, eskertzen da notak aintzat hartzea baina beste gauza batzuk hartzen ditut kontuan gehiago, esaterako proiektu bat egin ostean ondo dagoela esaten dizutenean, horrek askoz ere gehiago asetzen nau.

Zure lana beste leku batzuetan ezagutzera emateko parada izan duzu, eta bide batez hainbat hiri ezagutzeko?

Bai, normalean gure burua eta gure lana ezagutzera emateko bideak aldizkari zientifikoak eta kongresuak edo bilkurak izaten dira. Topagune ona bilakatzen da, bai lana aurkezteko bai beste ikerlariarekin ideiak elkartrukatzeko, eta aldizkariarekin lortzen ez duzuna lortzeko aukera ematen dizute kongresuek, hau da, ikerlariarekin berarekin eztabaidatzea eta ideiak aztertzea. Gainera, horren aitzakiaz New York, Boston, London eta Birmingham ezagutu ditut, eta apirilean San Francisco eta Los Angelesen izan naiz.

Cambridgeko Unibertsitatean Zinema talde bateko arduradun ere izan zinen eta abian da Unibertsitateko Euskal Elkartea. Zer nolako esperientzia izan zen lehena?

Hemen Cambridgen, dena mugitzen da unibertsitatearen inguruan. Pentsa, 16.000 ikasle gara guztira eta munduko leku guztietatik heldutakoak, mila afizio desberdinekin. Hori nolabait antolatzeke, University Society deritzon talde ofizialak daude. Denetik aurkitzen duzu: eztabaidataldeak, usoaren ehizaren taldeak... laz zinema talde batean sartu nintzen eta oso esperientzia interesgarria izan zen. Alde batetik, filmak bota edota zinemaren inguruan jarduerak antolatzen genituen. Adibidez, orain dela aste batzuk film laburren jaialdi bat antolatu genuen jendeak bere ekoizpenak aurkezteko aukera eduki zezan. Jende pila etorri zen eta oso interesgarria izan zen.



Cambridge Unibertsitateko Doktore izendatzen zaituztenean, ikerketa munduan jarraitzeko asmoa al duzu?

Hortan nabil orain. Cambridgen ikerketan jarraitzeko aukera daukat, eta era berean Euskal Herrira itzultzeko saioa egin dezaket, baina zailagoa da, izan ere ikerketan jarduten duten leku gutxiago baitago. Oraindik ez dut erabaki zer egin nahi dudana.

Baina, Hernani faltan botako duzu lantzean behin.

Bai noski eta batez ere janaria, lagunak eta familia. Cambridgeko bizimodua bakartiagoa da, lagunak daukazu baina beste era batera da dena. Ez dituzu Hernanin bezain maiz ikusten, ez dago horrenbesteko bizitza soziala, nolabait esatearren. Badago kultura jardueretara joaten den jendea, baina beste gauza bat da.

Bukatzeko, noiz itzuliko zara?

Egia esan, ez dakit. Uda partean egun batzuk pasa ditut Hernanin eta... urte hau garrantzi handikoa da niretzat, izan ere, abendurako Doktoregoa amaitzea nahiko nuke.